

# El Doctor PERU ABARCA

Catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte  
ó Diálogo entre un rústico solitario bascongado y un barbero  
callejero llamado Maisu Juan

Obra escrita en dialecto vizcaíno por el Presbítero D. JUAN ANTONIO DE MOGUEL  
y traducida al de Guipúzcoa por D. GREGORIO ARRUE con algunas variaciones

## DIALOGO SEGUNDO entre los mismos Maisu Juan y Peru

Interlocutores la bentera y su criada

(Jarraipena)

**Peruc.**—Bai iguerri dezu certan dagoen nere bildurra. Atsoari eguin diozcatzun ichurarie eciñ eguingo diezu alaco guizonai.

**Maisu Juanec.**—¡ Ah choroa! ¿ Nola progatu niri nio bota eraci nuela? Nescach serbitzari baten aguiria asco ezta. Alaco testigua legueac ontzat ematen duena ezta.

**Peruc.**—Zuc orañ ala diozu. Besteric ezpada ere, nai ainbat izango dira zure lepora botaco dituzten escribauen nequesariac.

**Maisu Juanec.**—¿ Cer deabru? ¿ Proganza oso gabe niri ezarri escribau eta justiciaco beste ministroen ibilli eta lanac?

**Peruc.**—Ezta bear ere. Ceuc icusico dezu. Nundic edo andic ateraco dituzte, eta nescacharen esanac zure caltean izango dira. Bestetic, atso gaxoac ondatuco ditu dauzcan cuarto apurrac, eltze ona eta olloarequin eguiña bearco du. Zure orde bester barberoren bat ecarrico dute... Badaquizu gaitz luceac asco daramala. Etá baldin bururatzen bazayo nescachari, arguibide gueyagoraco ni arnazatela esatea, ¿ cer eguin? Zugatic eta bestegatic nic nere anima galduco eztet.

**Maisu Juanec.**—¿ Orrenbeste bildur ematen dizu etorquizunac? Goazen zure echera, igaro zagun umore ederra, datorrena datorrela; neuc emango diet arpegui justiciaco opiciale diruzaleai; ascojaquiñac badira, ni ez guchiago.

**Peruc.**—Zu bezelaco bat noizbait buruz beeratu dute, eta zure jantzi pichidunoc bearra eguitetic atzeratuco ez dituzte; zure lots eta itzalac beñgoan icaratuco eztitu. Naizuna eguizu, eta goacen aurrera.

**Maisu Juanec.**—¿Cer soñu da nere belarrietara datorquidana? ¿Peru, zuc aditzen eztezu?

**Peruc.**—Bai, norbaiti Elizacoac eraguitera dijoaz.

**Maisu Juanec.**—Ara berriz campai-otsa. Atsoari Abadea dara-maquiote. Iltzen bada, nere querella joan zan.

**Peruc.**—Zuc itz on bat beñere esango eztezu; zu cristaua etzera. ¿Eztaquizu iñori opa bear etzayola gaitzie, gure calteguille eta etsaya bada ere? Gañera zu zera atsoari gaitz eguin diozuna; zuc aurrera beti ceure sall gaistoari. Ceu ondo bazaude, or compon besteac. Jaungoicoaren cigorrac jarraituco dizu, guizonena austen badezu ere. Atsoaren odolac deadar eguingo du.

**Maisu Juanec.**—Nai duena eguin beza, eta ez berriz aitatu niri atso orren conturic. Emendic aurrera tabernatic irten ezquero, gauza obeen gañean itzeguin bear degu. Gauza batec arritzen nau zugaran, au da, escolaric iduqui gabe eusqueraz orren ederqui itzeguiteac. Iracurle andia banaiz ere, nic ori ecin det. Bati baño gueyagori aditu diot, baserrietan dagoela eusquera garbiya; gartzelan izan gueranoc eta erri barruetacoac erdera ascorequin nasten degula eusquera. Zuri aditzen dizquitzudan icen neuc eztaquizquidanac, ipiñico ditut paperan, eusquera ondo itzeguiteco. Gure errico Apai-zari aditu diot, burua autsita ere sermoi bat eusqueraz eciñ ipiñi duela. Nic eracutsico diozcat zuri aditu dizquitzudanac.

**Peruc.**—Maisu Juan, nia eztaquit beste eusqueraric, ezpada nere guraso eta auzocoai aditu eta icasi diedana, eta ondoen deritzazuna eguizu. Buruauste asco artu nai dezun eusquera-icenac buruan artu eta lumaz paperean ezartzeaz. Nic lecu ascotara eramango zaitut, eta zuc eztaquizquitzun eusquera icen asco adituco dituzu. Abere beltz baten irrintzi estua aditzen det, bera hiltzen diardu araquiñac... Echea aurean dago; goacen laster, eta icusico degu ea cherri bilicurlari edo len ceorrec esan dezun bezela, anatomico ona heran. Nic eracutsico dizquitzut abere lauñeco zatar

onen zati andi eta chiqui guztia, eta icusico degu beren icenac daquizquitzun. Nic aditu det, cerri (barcatu, bere icena au da) cherri-barrua icusten duenac, guizonaren barrua icusten duela. Beraz zuc bata badaquizu, bestea jaquingo dezu.

**Maisu Juanec.**—Adisquidea, estu larriyan ipintzen dezu nere jaquinduriya: guizon hillac idiquitzen icusi ditut, baita bere zatiac batbanaca contatzen ere; baña cherrien anatomiya ez. Guizonarena nic esphicatuco dizut. Lenengo galdetzen degu, ¿cer da anatomiya? Eranzuten degu, dala arte bat eracusten duena disecatzen gorputzaren parteac, ezagutzeco norenac diran, eta cembatequin compontzen dan gorputza. Anatomiyac dauzca lau genero. **Osteologia**, edo ezur eta cartilaguen gañean tratatzen duena; **Splanchnologia**, edo errayen gañean iracasten duena. **Miyologia**, ceñec eracusten duen, cer diran musculuac, cembat eta certaraco. **Angeologia**, eta au da eracusteco, cer diran vasuac, cembat, eta cer usutaraco.

**Peruc.**—Berriquet asco. eta ecer on guchi. Belarrietara etorri bazaizquit ere, nic buruan eciñ artu nitzaquean itz moldacaitz oriec, ecer aditu eztizut. Eta ¿certaco da anatomia ori?

**Maisu Juanec.**—Da emateco Jaincoari esquerrac, icusirie fabrica añ ederra, ezagutzeco campoco eta barruco gaitzac; eguiteco pronosticua beren gañean, eta azquenic curatzeco.

**Peruc.**—Gorputz hillaren zatiac icusten Jaungoicoric eta esquerematerie secular bururatu etzazu. Orretan barrungo gaitzai iguerri-co eztiezu; or oi zabiltzate ceron jaquinduria usteaz gaxoac cer duen eciñ iguerri; batari mingaña atera eraci, mancharic edo torticarie ote daucan; besteari escuturra escatu, beatz biz eldu eta zañac motel, bizcor, berdiñ edo desberdiñ muguitzen ote diran iguertzeo; eta ¿zuen pronosticu, edo etorquizunen berri-emateac nolacoac oi dira? Batac hilco dala, besteac eztala: onec gaitza bereala ebaquico zayola, besteac luce joango zayola. Zuc esango dezu zañen ibilli ariñ eta bizcorragatic odola atera bear zayola; zure lagunac esango du, odola ateratzeac hilco duela, escuturreco tintina motel dabilquiolata. Orra icen andico zure anatomiac dacartzien mesedeac. Gaitza ezaugu gabe, bada-epzadan, irteten dana irteten dedilla; ematen dioz

catzute gaxoari errai guciac irabiatzen diozcan edari samiñ garratz eta nazcagarriac; hiltzen bada, or compon; osasunaz irteten bada, bazterretan zabaltzen zabiltzate, nic bai eguin dedala sendaera onelaco guizon urliyagan, odol-ateratze eta edari garratzgabe iñor sendatzen ezpalitz becela.

**Maisu Juanec.**—Peru, gure jaquinduriya zure bururaco ezta. Anatomiya ondo icasteco buru andi eta esnatua bear da. Adi nazazu. Gorputz umanoa da mundu chiqui bat, edo **microscosmu**a. Gorputz au da arbola bat becela, ceñec dauzcan troncoa eta adarrac. Troncoac dauzca iru cabidade, ceñtzuec diran burua, bularra eta beeco sabela; eta adarrac dira besoac eta ancac. Orañ autsico nizuque burua, asico banitzazu bat banaca esplicatzen cer gauzac dauden buruco cabidade edo barruan: batzuec dira bere-bereac: oyei deritzee **pelicraneua** eta **craneua**; besteac comunac gorputz guztiari, nola diran **cuticula**, **cutisa** eta **guicentasuna**. Asi baño eguiñ eztet.

**Peruc.**—Asco ta gueyegui da; gorde itzazu ceron arteraco itz zatar moldacaitz oriec, eta itzeguin eusquera.

**Maisu Juanec.**—Adisquidea, eusqueraz eciñ esplica litezque.

**Peruc.**—Lauoñeco ere arbola edo abe bici bat da, zuc esan dezuna eguia bada. Dauzca burua, bularra, eta beeco tripa: eta oyeetan barru-betan dauzcaten gauza-toqui asco daude. Oyec izango dira zorioneco zure **cabidadeac**. Lauoñeco batec buruan eta gorputzaren lecu ascotan dauzca azala, azalcho edo mintza eta guicentasuna; eta oyec dira, nere ustez, zure **cutisa**, **cuticula** eta **membranac**. Nere izqueta lenengotic aditu eta iguertzen da; zurea berriz deabruac berac ere adituco eztu. Azala bera beste azalcho meago baten barruan dago, eta azal lodiagoari itsatsia dagoen azalcho mea, mintz chit me eta eten-erraza da. Buru ezur biribilla beste ezur batzuen biltoquia da, eta ezur oyec eguiten dute utsune edo onci bat, eta munen toquia. Buru-ezur oni itsatsia dago bera estaltzeco mintz me bat. Maisua, berriqueta luce, gogaitcarri gabe, eta itz errazaz adierazi dizut eusqueraz, cer dagoen buruan: ala azalduco nizquitzuque beste gauz asco ere eusquera garbian, beguiaz icusi al ditezquean zañ, ezur edo mami gauzetan. Goacen laster cherri hilla icustera, eta zure ao be-

rotic ezpada, anatomiyaren icena secular aditu ezpadet ere, nic esango dizquitzut icenac.

**Maisu Juanec.**—Atseguñ andiagoa eman lizadaquean gauzic, eciñ esan deguidazuque. Icaratuco ditut nere opiciocoac, neuc bañõ anatomia gueyago daquien baserritar abarcadun bat topatu dedála esan deguiedanean.

#### Llegan al lugar de la matanza del marrano.

**Peruc.**—Ona nun dacusun lau oñecoa hillta, surtan igarota, idiquita. ¡O anatomico andi, Maisu Juan! Emen aguirico da itz arroaco alde bat utzita, ceñ jaquintsua ceran. Eracutsi eta icendatu zaizquidazu guere amaren sabeletic dacargun izquetan, lauñeco zatar onen pusca guztiac.

**Maisu Juanec.**—Peru, nic ecin nezaque, eta cerorrec icenda zaizquidatzu.

**Peruc.**—Ona bada. Lau oñecoari aguirian eta biciric dagoenean icusten zaizcan zati edo gauzac dira oyec :

Burua.

Belarriac.

Beguiac.

Betazalac.

Betilleac.

Beguitartea.

Muturrac.

Sudur zuloac.

Lepoa.

Cintzurra.

Zurdac.

Azal edo narrua.

Lau oñac.

Atzequi edo bustana.

Cilla.

Aoa.

Bizcarra.

Aguiñ-ortzac.

Matrall-ezurra.

**Eta ao barruan :**

Oyac, sapaya, mingaña.

**Buru barruan :**

Zortzi ezurrez bat eguindaco ezur nagusia, azala, mintza, eta muñac.

Eztarria.

Corcamistia eta oni dagozquion gauzac.

Biriac.

Andaarrayac.

Biotza.

Este gorria.

Urdalla.

Este meac.

Este lodiac.

Estartecoa.

Buscanza.

Guibela.

Odola.	Solomuac.
Zañac.	Solomuchoac.
Barea.	Sayesquiac.
Baresarea.	Paparoa.
Beazuna.	Arbiyac.
Guiltzurrunac.	Urdai guicena.
Ganza.	Urdai-azpia.
Saguac.	Ezur asco eta beren icenaz.
Gantzazala	Pusiga edo muñ-ontzia.
Churinga.	

¿Nai dezu gueyago? Aztutzen citzadan corotza, aztutzeco ohea data.

**Maisu Juanec.**—Ez nuen sinistuco baserritar batec orrembeste icen jaquin citzaqueala, eta eusquera bere itzetan orren aberatsa zala. Nic eciñ artu nitzaque buruz icen guzti oriec illabetean ere. Ipiñico ditut paperean, nere opicioo besteai eracusteco.

**Peruc.**—Ordu onean; eta esango dizquitzut bat-banaca. Cherriac berac, añ ichusia dalaric, icen asco dauzca. Batzuec esaten diote **lau oñecoa**, besteac **belarlucea**, beste batzuec **ganadu zurdaduna**, lecu ascotan **ganadu beltza**; ez añ ondo, bada asco dira zuriac ere; badira **urdea** esaten diotenac. Lau oñecoac batzuec **ordotsac** dira, besteac ardiac; edo arrac eta emeac. Aitatzat artzen diranai, edo aitatzuzeco daudenai deitzen zaye **apua**, eta barcacioa escatu gabe, eciñ aitatu dute baserritar prestuac onelaco icenic. Echean aitzeco lau oñecoren bat iñoiz erosi nai badezu, beguira zayozu ondo belarriai eta bizcarrari. Belarri luce, zapal eta maecilac eta bizcarra gora edo jasoa dituen, laster aci eta guicenduco da. Maisua, onera etorri gueran ezquero, ascatu bear da poltsa, eta eman bear da cerbait epalle eta batu diranac ardoa edan dezaten. Cerbait gueyago guztioe edango badegu, guchienez picharra bat bearco da. Ala eguin oi da; eta zuc orren apaíndua zauden ezquero, prestuez, dollor, cicoitz, cequen eta ciscu-estutzat cere burua agertu bear eztezu.

**Maisu Juanec.**—Ondo diozu, eta combita nic ecartzea arrazoi da. Baña, berac ere pregi deguiguela guibela, edo erre deguizquiguetela guiltzurrunac, eta solomu zati bat.

**Peruc.**—Eciñ orrelacoric iñori aita guiñozaque, berac aurreratzten ezpadira; lotsagabe eta gaizqui aciyac guerala, esango luteque; eta gañera echeraco berandutuco litzaguque.

**Maisu Juanec.**—Orra lau oñeco bati ematen zayon pagua, urte batean erregalotan iduquita.

**Peruc.**—Ondo diozu, eta orañ datorquit gogora gaztetan icasi nuen, eta asco esan nai duen ipui au.

Eldu zan saleche batera azeri bat, eta topatu zuen an cherri guicen eta mardula. Onec esan cion: ¿Cer darabillec emen lapur cital orrec? Iri guciac gorroto bicia ditec. Eizean dabiltzanac, berac hill nai lituzqueen eperrac eramaten ditucalaco. I becelaco bat nayago ditec sei eper baño, eguiten ditucan calteacgatic. Echeten eciñ icusi aute, olloac arrapatzen ditucalaco. Chacurrac urrutitic iguertzen ditec, botatzen decan quiratsa dala bide, urrean abillela. Asco ostu, eta beti argal, beste lapurren guisa. Olloquiz, bildotsquiz eta eperquiz bete, eta beti aragui charra eguiten dec. Hiltzen baaute ere, ecertaco nai ez aute. ¿Ezdacusc berriz nere bicitza ona? Jan ta lo, iñoiz ibiltzera irtenaz. Etortzen zadac nescacha zucu, artale eta gatañaquin. Tripapean eta lepazamarrean ni igortzen oi cebillec, eta bere poza, nic ondo jan eta ni guicentzea dec; eta egun batean jan nai ezpadet, illuntzen zayoc biotza, eta negarrez becela cioc; jangartzutu da gure lauonēcoa, eta igortzi eta palaguac eguiten ari zadac jan eracitzeco. Azariac esan cion: ¡Ah tontotzarra! ¡Lo eguizac, guicendu adi. Ire odolqui, lucainca, guibel, bare, solomu eta decan guztia maite cituztec. Ire urdai gozatsuac urte guztian cincilic egon bearco dic, guiltzurrun eta solomuac surtan erretzen. Epallia atorquianean, eta iru edo lau guizonec elduta, leptotic errayetaraño gani-beta sartzen dicanean, oñai eciñ eraguiñez, irrintziaca esango dec: ¡O aceri patu onecoa! ¡eta cembat ni baño suerte obecoa aizan! ¡Orra certara, jo duten nere jan, lo eta bici onac.

(*Jarraituco da*)